



KULTURA ARTEKO
ARGAZKI TAILERRA
TALLER INTERCULTURAL
DE FOTOGRAFÍA



«Munduko gauzarik onena munduko mundu ugarietan aurkituko duzu.»

«Lo mejor que el mundo tiene está en los muchos mundos que contiene.»

Eduardo Galeano.



En los últimos años, la emigración de niños y jóvenes por motivos económicos o por dinámicas de reagrupación familiar plantea nuevos retos al conjunto de la sociedad.

La integración y la participación social de este colectivo es sin duda una de las claves para conseguir una sociedad abierta y cohesionada.

Estos jóvenes presentan diferentes realidades en función de su nacionalidad, situación jurídica, género o edad.

Las carencias familiares, las dificultades para encontrar trabajo, la tensión que provoca el proceso de adaptación y las características de su nuevo país de destino (políticas de acogida, actitudes de la sociedad receptora...) son factores que condicionan la manera en que estos jóvenes se integran y se relacionan con la sociedad de acogida.

En este contexto, resulta conveniente promover proyectos de convivencia que generen redes sociales entre personas de diferentes culturas, con especial atención al colectivo de jóvenes.

El taller intercultural de fotografía constituye, en este sentido, tanto un espacio de encuentro y participación social del joven inmigrante como una estrategia orientada a la creación de vínculos con la sociedad de acogida.

Asimismo, supone para nosotros una nueva forma de acercarnos al hecho migratorio, a través de la mirada del grupo de jóvenes participantes sobre su propia realidad, sus expectativas, proyectos e ilusiones.

Azken urteotan, arrazoi ekonomikoak edota familia berrelkartzea dela eta, umeen eta gazteen emigrazioak gizarteari erronka berriak ekarri dizkio.

Kolektibo horren integrazioa eta parte hartze soziala gakoetako bat da, zalantza barik, gizarte zabala eta kohesionatua lortzeko.

Gazte hauen errealitateak desberdinak dira, nazionalitateak, egoera juridikoak, generoak edota adinak baldintzatuta.

Familiak dituen gabeziak, lanean hasteko arazoak, egokitze prozesuak eragiten duen tentsioa eta iritsi diren herrialdearen ezaugarriak(harrera-politikak, gizarte hartzaile horren jarrera...), horiek guztiak baldintza-faktoreak dira gazte horien integrazioa eta gizartearekiko harremana bideratzeko.

Testuinguru horretan, egokia da elkarbizitzarako proiektuak bultzatzea kultura desberdinetako pertsonak osaturiko sare sozialak sortzeko, bereziki, gazteei zuzendutakoak.

Horrela bada, kulturen arteko argazkigintza tailerra etorkin gazteak elkartu eta parte hartzeko gunea da, gizarte hartzailearekiko loturak sortzeko estrategia gisa.

Halaber, guretzat migrazioa hurbiltzeko era berria da; gazteen begiradaren bidez, beraien errealitatea, itxaropena, proiektuak eta ilusioak ezagutu baititzakegu.

Goiztiri Diaz Basterra.
Gizarte Ekintza, Lankidetza eta Inmigrazio zinegotzia



2011-12ko neguan argazkigintza-tailer berezi bat jarri genuen martxan Durangon. "rebelarT" zeritzon, eta jatorriz afrikarrak izan eta herrian bizi diren gazteentzat antolatu genuen.

Argazkigintza tresna bikaina izan da gazteon egunerokotasuna eta euren burua islatzeko, "errebelatzeko" azken batean. Irudien bidez, antolatu egiten dugu ikusten duguna eta sentitzen duguna. Irudiak ispilu bilakatzen dira, gure burua ezagutzeko ispilu aberats.

Telefono mugikorretan dauzkaten irudiak eta ikastaroan egindako argazkiak sendagarriak izaten dira "herriminak" jota daudenerako. Irudi guztiekin euren mundua, biografia eta nortasuna eratzen dute. Beti ere, bi munduren arteko oreka zailean; sustraian eta bizimodu berriaren arteko borrokan.

Ikastaroan ikasleen jarrera aktiboa bilatu dugu. Horretarako, begiratzeko eta adierazteko gaitasunak bultzatu ditugu.

Lan horren ondoren, taldean aztertu ditugu irudiak, hitzari eta eztabaidari atea zabalduz. Ideiak eta ikuspuntuak aurrez aurre jartzeko aukera aparta izan da. Azkenean ondorio argi bat ateratu dugu: gauza askok eta askok batzen gaituztela, eta bereiztu, bakar batzuek baino ez. Beste era batera esanda: hangoen eta hemengoen nahiak, beldurrak, baloreak eta ametsak berdintsuak direla.

Amaitzeko, gazte hauei eskerrak eman nahi dizkiegu, euren bizimodu berri eskuzabal erakutsi digutelako. Guretzat oso esperientzia aberasgarria izan da, eta eurentzat ere antzekoa izatea nahiko genuke.

En el invierno de 2011-12, un grupo de jóvenes africanos residentes en Durango participan en el taller de fotografía "rebelarT".

La fotografía se convierte en una herramienta que retrata la realidad que les rodea y así les autorretrata, les "revela". Las imágenes ordenan lo que vemos y sentimos, y nos colocan frente a un espejo en el que mirarnos, y por lo tanto, conocernos.

Las fotografías realizadas en el curso se suman a las que guardan en sus móviles para cuando la "morriña" aprieta, y entre todas van conformando su visión del mundo, su biografía y la construcción de su identidad, a menudo a caballo entre su fidelidad a la cultura de origen y la necesidad de adaptación a la nueva realidad.

En el taller se intenta fomentar la observación consciente y la capacidad expresiva de los participantes, convirtiéndolos en protagonistas activos del proyecto.

Más tarde, el visionado colectivo de las imágenes abre la puerta a las palabras, y ahí se confrontan las opiniones y las diferencias, pero invariablemente, lo que queda al final es la constatación de que lo que nos une es mucho mayor que lo que nos separa, la similitud de nuestros anhelos, miedos, valores e ilusiones.

No queda sino agradecer la generosidad con que estos jóvenes nos muestran sus vidas y esperar que la experiencia haya sido para ellos tan enriquecedora como para nosotros.

Txelu Angoitia.
Tailerraren koordinatzailea




ARGAZKIAK / FOTOGRAFIAS



10 gazte afrikarren begiradak Durangon.

10 miradas de jóvenes africanos en Durango.



DOUDOU
SENEGAL

Casamancen jaio nintzen, Senegalgo hegoaldean. 2006. urtean Europara etorri nintzen lagun batzuekin nire bizitza eta nire senideena hobetzen saiateko asmoz. Senegalen proiektu bat garatzea gustatuko litzaidake, hango pertsonak aukera gehiago izan ditzaten.

Heldu nintzenean lana aurkitzea erreza izango litzatekeela pentsatu nuen, baina orain, krisiaren ondorioz, nire helburuakgero eta urrunago ikusten ditut. Europak atea ixten dizkigula uste dut, eta triste, bakarrik etalaguntzarik gabe sentitzen naiz. Hala eta guztiz ere, nire xedeak ez ditut bertan behera utzi. Lan egiten jarraituko dut nahi dudana lortzeko. Etorri izana ez zait damutzen. Eta nire etorkizuna Europan irudikatzen dut familia batekin. Bidai luze honetan lagundu didaten pertsona guztiei eskerrak ematea gustatuko litzaidake.

Nací en La Casamance, al sur de Senegal. En 2006 vine a Europa con otros amigos para intentar mejorar mi vida y la de mi familia. Me gustaría desarrollar un proyecto en Senegal para que las personas de allí tengan mas oportunidades.

Cuando llegué pensaba que sería mas fácil encontrar trabajo, pero ahora, con la crisis cada vez veo mas lejos mis objetivos. Siento que Europa nos cierra las puertas y me siento solo, triste y sin apoyos. Pero no he abandonado mis metas. Voy a seguir luchando para conseguir lo que quiero. No me arrepiento de haber venido, y me imagino mi futuro en Europa, con una familia. Me gustaría dar las gracias a todas las personas que me han ayudado en este largo viaje.



Dioque-n (nire herrian) arroza ereiten / Plantando arroz en mi pueblo, Dioque



2009. urtean Durangora heldu nintzen. Familia biltzeko egoitza-bisatu batez etorri nintzen. Nire aita hemen bizi zen eta berarekin ekarri ninduen nire ikasketak jarraitzeko asmoz. Nire gurasoek emigratzeko erabakia hartu zuten niri etorkizun hobea eman ahal izateko. Lau anai-arreba gara eta ni nagusia naiz. Haietariko bi Senegalen bizi dira nire amarekin.

Durangoko Institutoan ikasten hasi nintzen. Hasieran, oso gogorra izan zen hizkuntzaren zailtasunagatik. Hala ere, nire klaseko ikaskideek oso ondo tratatu ninduten. Orain, sukaldaritza ikasten dut Galdakaoko Ostalaritza Eskolan. Nahi dudana oso argi daukat: Goi Mailako Heziketa zikloa egin, ostalaritzan lan egin eta ostalaritzako negozioa ipini, hemen edo Senegalen.

Nire aisialdian lan egiten dut, eta ahal dudanean, nire lagunekin irtetzen naiz. Orain oso ondo nago. Lagun asko dauzkatz eta nire Durangoko bizimodua gustatzen zait. Hala ere, gehien falta sentitzen dudana nire ama da.

Llegué a Durango en el año 2009. Vine con un visado de reagrupación familiar. Mi padre vivía aquí y me trajo con él para que pudiera continuar con mis estudios. Mis padres tomaron la decisión de emigrar para poder darme un futuro mejor. Soy la mayor de 4 hermanos, dos de ellos viven en Senegal con mi madre.

Empecé a estudiar en el Instituto de Durango. Al principio fue muy duro por la dificultad del idioma, pero me sentí bien acogida por mis compañeros de clase. Ahora estoy estudiando cocina en la Escuela de Hostelería de Galdakao. Tengo muy claro lo que quiero: hacer el Ciclo Formativo de Grado Superior, trabajar en el sector hostelerero, y montar un negocio de hostelería, aquí o en Senegal.

En mi tiempo libre trabajo, y cuando puedo, salgo con mis amigas. Ahora me siento bien, tengo muchos amigos y me gusta mi vida en Durango, aunque echo mucho de menos a mi madre.



Eskolan gogaituta / Me aburría en clase



2007. urtean Europan sartu nintzen turista bisaz. Nire familiari laguntzeaz gain, dirua lortu nahi nuen nire herrialdean inbertitzeko eta emplegua sortzeko. Hori izan zen nire ametsa, baina gauzak ez dira errazak, paperak, lana, krisia...

Batzuetan txarto sentitzen naiz, nora joan edo zer egin aukeratzeko ez naizelako aske. Senegalen nire lana alde batera utzi nuen nire bizitza hemen hobetzeko asmoz, eta orain langabezian nago. Hala ere, badakit nahi dudana eta ez dut atseden hartuko nire ametsa lortu arte.

Bide honetan ezagutu eta lagundu didaten jendea onena izan da. Txarren, familiarik eza, batez ere nire aitarena. Hona etorri bezain laster, hil zen. Ezin izan nuen agurtu. Halaber nire lagunak faltan botatzen ditut, haiekin kanoaz arrantzan egiten joatea edo oihanetik nire txakurrekin paseatzea.


Entré en Europa con un visado de turista en el 2007. Quería ayudar a mi familia y conseguir dinero para invertir en mi país y crear empleo. Ese era mi sueño, pero las cosas no son fáciles, los papeles, el trabajo, la crisis...

A veces me siento mal, no soy libre para decidir donde ir o qué hacer. Dejé mi trabajo en Senegal para mejorar mi vida aquí, y ahora estoy en el paro, pero sé lo que quiero y no descansaré hasta conseguir mi sueño.

Lo mejor de este camino ha sido la gente que he conocido y me ha ayudado. Lo peor, la falta de mi familia, sobre todo la de mi padre que murió poco después de venir yo aquí sin poder despedirme. También añoro a mis amigos, ir con ellos a pescar en canoa o pasear por la selva con mi perro.



Futboleko lehen taldea / Nuestro primer equipo de fútbol



LAHCEN

MARRUECOS

15 urte bete arte ni Tissamouminen, Marokon, bizi nintzen. Ikasten nenbilen, baina ez zitzaidan gustatzen eta Tanger-era lan egitera joan ginen nire familiaren baimenik gabe. Nire aitak nik ikastea nahi zuen.

Tanger-en hiru hilabete inguru egon ginen diru gutxigatik lan egiten, soilik jan ahal izateko Ez zitzaidan gustatzen nola zegoen Maroko. Lanik ez zegoenez, lagun batzuek eta biok Espainara joatea erabaki genuen.

Algeciras-era heldu nintzen. Handik, Jerez-era eraman ninduten non hilabetez egon nintzen. Hala ere, gustatzen ez zitzaidanez, Bilbora etorri nintzen. Hemen hobeto bizi zela esan zidaten. Jadanik urte bat eta hiru hilabete daramatzat. Soldadura -ikastaro bat egiten nabil eta gustatzen zait.

Nire familiarengan asko pentsatzen dut, baina beraiekin hitz egiten dut eta badakit ondo daudela. Marokotik janariaren eta lagun batzuen falta sentitzen dut. Etorri baino lehen, lan egingo nuela eta pisu batean bizi izango nintzela pentsatzen nuen. Gauzak ez dira hain errazak izan, baina orokorrean lehen baino hobeto nago.

Hasta los 15 años yo vivía en Tissamoumine, Marruecos. Estaba estudiando, pero no me gustaba y me fui a trabajar a Tánger sin el permiso de mi familia porque mi padre quería que yo estudiara.

En Tánger estuve unos tres meses trabajando por poco dinero, solo para poder comer. No me gustaba cómo estaba Marruecos, no había trabajo, así que con otros amigos decidimos irnos a España.

Llegué a Algeciras. De allí me llevaron a Jerez de la Frontera, donde estuve un mes, pero no me gustaba, así que me vine a Bilbao. Me habían dicho que aquí se vivía mejor. Ya llevo un año y tres meses. Estoy haciendo un curso de soldadura y me gusta.

Pienso mucho en mi familia, pero hablo con ellos y me dicen que están bien. También echo de menos la comida y los amigos. Antes de venir pensaba que iba a trabajar y vivir en un piso. Las cosas no han sido tan fáciles pero en general estoy mejor que antes.



Izurtzako jendeari mairuen pintxoak prestatzen / Preparando pinchos morunos para la gente de Izurtza



20 urte nituenean heldu nintzen hona. Nire herrialdean ikasi eta lan egiten nuen baina ez nuen etorkizunik ikusten. Nire gurasoek ez zuten nahi ni joatea. Horregatik, haiei agur egin gabe joan nintzen. Kanarietara heldu nintzenean internamendu zentro batean eduki ninduten 45 egunez. Han konturatu nintzen gauzak ez zirela izango irudikatu nuen bezala. Desengainatuta sentitu eta itzuli nahi izan nuen. Hala ere, aurrera jarraitzea erabaki nuen.

Kanarietan egon eta gero, Valentzian, Madrilen eta Zaragozan egon nintzen. Han, soldadura ikasi nuen baina lanik ez zegoenez, Durangora etorri nintzen. Graduatua, gaztelania eta euskara ikasten nabil. Gauzak aldatzeko itxaropena daukat eta horrek aurrera jarraitzen laguntzen dit. Bide honetan, beste kultura batzuetako jendearekin bizi izaten, indartsua izaten eta zailtasunak gainditzen ikasi dut. Batzuetan, etorkina izateagatik baloratzen ez zaituzten pertsonak aurkitzen ditut. Horrek min handia egiten dit, baina ahazten saiatzen naiz eta aurrera jarraitzen dut.

Llegué aquí con 20 años. En mi tierra estudiaba y trabajaba pero no veía futuro. Mis padres no querían que me fuera, así que me marché sin despedirme de ellos. Cuando llegué a Canarias me tuvieron 15 días en un centro de internamiento. Allí me di cuenta de que las cosas no serían como las había imaginado, me sentí decepcionado y quise regresar, pero decidí seguir adelante.

Después de Canarias, estuve en Valencia, Madrid y Zaragoza. Allí estudié soldadura, pero no había trabajo y me vine a Durango. Estoy estudiando el Graduado, castellano y euskara. Tengo esperanzas de que las cosas cambien y eso me ayuda a seguir. En todo este camino he aprendido a vivir con gente de otras culturas, a ser fuerte y a superar las dificultades. A veces encuentras personas que no te valoran por el hecho de ser inmigrante. Eso, me afecta mucho, pero intento olvidarlo y seguir adelante.



Neska bat Ndoth-en / Chica en Ndoth



ROCKY

SENEGAL

Senegaletik irtetea erabaki nuen nire bizitzaren aspektu asko hobetzeko. Senegalen gauzak txarto zeuden, lan gutxi eta egunero grebak eskolan. Nire aitak berrelkartuta ekarri ninduen, zeinek denbora eta diru asko behar izan zituen; egoitza-baimena ezapidetzea, bisatua, txartela...

Durangon, F.J. de Zumarraga institutoan ikasten nabil. Hizkuntza, musika eta gizarte ikasgaiak gustatzen zaizkit, baina matematikak ez. Hemen egoteak poztzen nau. Hona etorri baino lehen, dena oso polita irudikatzen nuen eta benetan, polita da. Herriak zein hiriburua, Bilbao, gustatzen zaizkit. Nahiz eta erraza ez den hemen bi hizkuntza daudelako, hizkuntza oso azkar ikasi dut.

Esperientzia, espero nuen baino hobea da, nahiz eta faltan asko bota nire familia, lagunak, etxea, herria eta batez ere, nire ama, neba eta ahizpa.

Decidí salir de Senegal para mejorar mi vida en muchos aspectos. En Senegal las cosas estaban mal; poco trabajo y huelgas en la escuela todos los días. Vine "reagrupada" para reunirme con mi padre, lo cual supuso mucho tiempo y dinero invertido en la preparación del viaje: tramitación del permiso de residencia, visado, billete...

En Durango estoy estudiando en el instituto F. J. de Zumarraga. Me gustan las asignaturas de lengua, música y "gizarte", pero no las matemáticas. Estoy contenta de estar aquí. Antes de venir me lo imaginaba todo muy bonito y realmente lo es. Me gustan los pueblos y también la capital, Bilbao. He aprendido muy rápido el idioma, aunque no resulta tan fácil porque también hay que aprender euskara.

La experiencia es mejor de lo que esperaba, aunque echo de menos a mis amigas, mi casa, mi pueblo, y especialmente a mi madre, mi hermano y mi hermanita.



Santo Tomas eguna. Nire lagunik onena Laura da, ilehoria / Santo Tomás. Laura, la rubia, es mi mejor amiga



NASH
GHANA

Orain dela hamar urte nire aita hil egin zen. Garai hartan ni ikasten nengoen, baina lana aurkitzeko aukera gutxi zegoenez, emigratzea erabaki nuen nire familiaren bizitzako baldintzak hobetzeko. Honako bidaia oso gogorra izan zen. Urte eta erdi iraun zuen eta heldu ahal izateko Mali, Argelia, Maroko eta Sahara zeharkatu behar izan nituen. Herrialde hauetan, lan txiki batzuk egin nituen bidaia ordaindu ahal izateko. Azken tarteaz, pateraz egin nuen.

Durangon, umetako lagun batek bere etxean hartu ninduen. Gaztelania ikasi eta gero soldadura eta "karretillero" ikastaroak egin nituen. Orain graduatua prestatzen nago. Pentsatzen nuen dena askoz errazagoa izango zela, baina ez dago lanik. Gainera, nire familia hemen ez egoteak hutsik sentiarazten nau. Hala ere, harro nago oztopoak gainditzeko egin dudana ahaleginagatik eta Durangon ongi hartuta sentitzen naiz. Hemen ez dut ikusi beste leku batzuetan ikusi dudana arrazakeria.

Mi padre murió hace diez años. Yo estaba estudiando, pero había pocas expectativas de trabajo y decidí emigrar para mejorar las condiciones de mi familia. El viaje hasta aquí fue muy duro. Tardé año y medio en llegar atravesando Mali, Argelia, Marruecos y el Sahara. En estos países hacía pequeños trabajos para ir pagando el viaje. El último trayecto lo hice en patera.

En Durango, un amigo de la infancia me acogió en su casa. Estudié castellano y luego hice dos cursos, de soldadura y carretillero. Ahora estoy preparando el Graduado. Pensaba que todo sería más fácil, pero no hay trabajo, y la ausencia de mi familia me hace sentirme vacío. Aún así, me siento orgulloso del esfuerzo que he realizado para superar los obstáculos y me siento bien acogido en Durango. Aquí no he sentido el racismo que he visto en otros lugares.



Cap Cost, Ghanan. Koloniaren garaian esklaboentzako kartzela zen / Cap Cost, en Ghana. Era una cárcel para esclavos en la época colonial



14 urte nituenean ikasteari utzi nion arrantzan lan egiteko eta nire zazpi neba-arreben ikasketak ordaintzeko. Lan horretan ez nuen askorik irabazten, beraz, 17 urterekin Europara etorri nintzen nire senideei ezer esan gabe. 2007. urtean, Kanarietara heldu nintzen. Han internamendu zentro batean egon nintzen hilabete baino gehiago. Gero, Andaluziara eraman ninduten eta handik Durangora etorri nintzen lagun bat neukalako.

Lehenik gaztelania ikasi nuen eta gero soldadura eta pintura, baina Atzerriarren Legeak lana lortzea zailtzen du. Nire aisialdian kirol-ekintzetan parte hartzen dut, batez ere futboleant. Horrela, aurrera jarraitzen laguntzen didan jende asko ezagutu dut.

Bidea oso gogorra izan da, baina zailtasunak gainditzeko egoten ari naiz. Lan egitea gustatuko litzaidake nire senideei bisita egiteko. Ez ditut ikusi duela 6 urte. Nire etorkizunari buruz pentsatzen dudanean, neure burua Durangon ikusten dut lan egiten eta euskara ikasten.

Dejé de estudiar a los 14 años para trabajar en la pesca y pagar los estudios de mis 7 hermanos, pero en aquel trabajo no ganaba mucho dinero. A los 17 años decidí emigrar a Europa sin avisar a mi familia. En 2007 llegué a Canarias, donde permanecí mas de un mes en un centro de internamiento. De allí me trasladaron a Andalucía y mas tarde pude venir a Durango, donde tenía un amigo.

Primero aprendí castellano y luego soldadura y pintura, pero la Ley de Extranjería hace que sea muy difícil conseguir un trabajo. En mi tiempo libre participo en actividades deportivas, sobre todo fútbol. Así he conocido a mucha gente que me ha ayudado a seguir adelante.

El camino ha sido muy duro, pero voy superando las dificultades. Me gustaría trabajar para poder visitar a mi familia. No les he visto desde hace seis años. Cuando pienso en mi futuro, me veo en Durango trabajando y aprendiendo euskara.



Awa laguna Durango Irratian / Mi amiga Awa en Durango Irratia



CHEIKH
SENEGAL

Euskadira etortzea erabaki nuenean, nire anaiarekin baino ez nuen hitz egin. Nire amak ez zuen nahi ni joaterik. Inoiz ezin izan nizkion nire arrazoiak azaldu hil egin zelako Tenerifera heldu nintzenean. Bidaia oso gogorra izan zen. Internamendu zentro batean hilabete egon nintzen. Gero, Guadalajarara eraman ninduten eta hortik Markinara joateko txartela lortu nuen. Markinan galdategi batean lan egiten zuen anaia neukan.

HHIan gaztelania ikasi nuen eta hizkuntza hobetu nuenean, "karretillero" eta eraikinen mantentze ikastaroak egin nituen. Orain Graduatua prestatzen nago. Esperientzia txarrak erlatibizatu egin ditut. Gainditu egin behar dira aurrera jarraitzeko. Esperientziarik txarrena: Kalean lo egin behar izatea, logela bat ordaindu ezin izateagatik.

Batzuetan adoragabe sentitzen naiz nire egoera erregularizatzen laguntzen didan kontratu bat ez lortzeagatik. Bizi ahal izateko diru laguntza baten beharrean egotea oso gogorra da. baina nahi dudana oso argi daukat: lan egin eta etorkizunean negozio bat jarri.

Cuando decidí venir a Euskadi, solo lo hablé con mi hermano. Mi madre no quería que marchase, y nunca pude explicarle por qué lo hacía ya que murió cuando yo llegaba a Tenerife. El viaje fue muy duro. Pasé un mes en un centro de internamiento, luego me llevaron a Guadalajara, Madrid, y desde allí conseguí un billete hasta Markina donde mi hermano trabajaba en una fundición.

Aprendí castellano en la EPA y cuando mejoré el idioma hice un curso de carretillero y otro de mantenimiento de edificios. Ahora preparo el graduado. Las malas experiencias las he relativizado, hay que superarlas para seguir adelante. Lo peor ha sido tener que dormir en la calle por no poder pagar una habitación.

A veces me siento desanimado por no poder conseguir ese primer contrato que me ayude a regularizar mi situación, es muy duro depender de una ayuda para poder vivir pero tengo muy claro lo que quiero: trabajar y en el futuro montar un negocio.



Berrizko zalditegian / En el centro hípico de Berriz



Cassamancen jaio nintzen, Senegalgo hegoaldean. Europara etortzea erabaki nuen nire senideei lagundu ahal izateko. Kanaria Handira heldu nintzen pateraz. Gero, Bartzelonara eramán ninduten.

Durangora etorri baino lehen, Granadan eta Almerian bizi izan nintzen. Andaluzian, bakarrik nengoen. Ez neukan ez adiskiderik ez seniderik. Bakarrik egoteak eta paperen faltagatik lanik ez egiteak adoregabe sentiarazi zidaten. Azkenean, herrikide batzuek euren etxean hartu ninduten. Gero, Durangon bizi ziren nere familiaren lagun batzuek txartela ordaindu eta hemen lagundu zidaten. Orain hobeto nago. Gaztelania ikasi eta garbiketa-ikastaroa egiten dut.

Nire neba-arreben eta amaren falta sentitzen dut. Ikusi ezin ditudala jakiteak tristetu egiten nau, baina lana aurkitzeko eta haiei laguntzeko itxaropena dut. Ez naiz Senegalera itzuliko nire helburuak lortu arte. Oso gogorra izan da. Horrexegatik lortu gabe joatea porrota izango litzakete.

Nací en la Casamance, al sur de Senegal, y decidí venir a Europa para ayudar económicamente a mi familia. Llegué a Gran Canaria en patera. Después me llevaron a Barcelona, y también he vivido en Granada y Almería.

En Andalucía estaba solo, no tenía amigos ni familiares. Estar solo y no poder trabajar por falta de papeles me hizo sentirme muy desanimado. Por fin, unos compatriotas me acogieron en su casa, y más tarde, unos amigos de la familia que vivían en Durango me pagaron el viaje y me ayudaron aquí. Ahora estoy mejor. Estudio castellano y hago un curso de limpieza en Berriz.

Echo de menos a mi madre y a mis hermanos. Me entristece saber que no puedo verles, pero tengo la esperanza de encontrar un trabajo para ayudarles. No volveré a Senegal hasta conseguirlo. Ha sido muy duro, así que volver sin nada sería un fracaso.



Aruna eta Samba adiskideak. Gau zoragarria / Mis amigos Aruna y Samba. Una noche genial



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



Antolatzailea
Durangoko Udala. Gizarte Ekintza,
Lankidetzeta eta Inmigrazio Saila

Inmigrazio Teknikaria
Verónica Redondo

Koordinazioa
Txelu Angoitia

Diseinua
Biko Komunikazioa (Durango)

Itzulpenak
Fernan Ruiz / Jesus Mari Arruabarrena





KULTURA ARTEKO
ARGAZKI TAILERRA
TALLER INTERCULTURAL
DE FOTOGRAFÍA